



Iruñeko III.
bertsopaper
lehiaketa

Antolatzaileak



Iruñeko IV. Bertsopaper Lehiaketa. 2023

Saritutako lanak

AURKIBIDEA

A kategoria

(1.saria)

Enaitz Zestau Telletxea. Totti 3

(2.saria)

Araia Irigibel Terreros. Gure mundu ederra 5

(3.saria)

Maialen Ormaetxea Erro. Netflix ikusten 7

B kategoria

(1.saria)

Kattin Madariaga Apaolaza. Hau ote da? 9

(2.saria)

Kattin Madariaga Apaolaza. Zori onak, edo12

(3.saria)

Kattalin Lizarraga Mendia. Modelo gorputza14

C kategoria

(1.saria)


Eneko Fernandez Maritxalar. Baina zergatik guri.....16

(2.saria)

Estitxu Arozena Albizu. Hamabi bertso baietz 21

(3.saria)

Manex Mailharin Ortigosa. Bertso(gintzaren) paperaz26



ENAITZ ZESTAU TELLETXEA

Totti

A kategoria – 1.saria

Doinua: Baneza eta banitu

1.

Kanpoan hotza, euria
etxean da familia
mahai gainean afaria
norbait falta da egia!
sutondoaren bazter batean
hantxe dago exeria
su gartsuari begira dago
familiako txikia
besotan estu - estu duela
bere panpina haundia
ez du askatzen eskutan duen
ponpoxo, Ttotti ardia.

2.

Joan zaio aita nagia
ematera afaria
arroza ta haragia
dena ongi nahasia
ta esan dio goza ezazu
nire semetxo maitia
jan behar duzu bilakatzeko
azkarra eta bixia
ta erantzun dio ez dut goserik
ez dut jan nahi janaria
aulkitik altxa egin da eta
a(ha)ntzi du Ttotti lodia.

3.

Haurra gelara badoa
pentsatu gabe geroa
hori da bai arazoa
ai, ai, ai Haize gaixoa
Ttotti aulkitik erori da ta
nahiz ez den hain arraroa
umetxoa konturatzerako
han dago Ttotti goxoa
ta ikusi du sutan erretzen
zaiola panpinatxoa
Haizeri minez, begi ertzetik
ixuri zaio malkoa.



ARAIA IRIGIBEL TERREROS

Gure mundu ederra

A kategoria – 2.saria

Doinua: Pasaiako herritik

Ur, su, haize ta lurrez
osaturik dago
ondo zaintzen ez bada
betiko akabo
eguzki zein hodeia
eurari trago
hirian baino hobeto
naturan ni nago.

Autoz, kamioiz ta motoz
bidaiatu beti
hankak ta txirindula
mundu bat ireki
kutsatu gabe gaude
pozik dotoreki
ingurua zaintzea
hori da hobeki.

Gure mundu ederra
tristuraz beteta
kolore horia da
gurean alerta
zabor geihago botaz
gabiltza asteka
zaindu dezagun behingoz
gure lur planeta.



MAIALEN ORMAETXEA ERRO

Netflix ikusten

A kategoria – 3.saria

Doinua: Igaran egun batez

Ostiraletan beti
netflix dugu pizten
Hainbat film ta telesail
zaila da hautatzen
Pelikula bat hasi
ta ez zaigu gustatzen
Ritmo honetan inoiz
ez dugu bukatzen

Trailer guztiak ditut
buruz ikasita
Kredituak ere bai
buruz ikusita
Pelikula guztiei
eginda kritika
Denak ikusi ditut
ta ezer polita

Pelikula jarrita
bati ez gustatu
Kredituak ikusi
hurrengo hautatu
Bertze bat jarri eta
ez dugu asmatu
Ohera joango naiz
ta gaurkoz bukatu



KATTIN MADARIAGA APAOLAZA

Hau ote da?

B kategoria – 1.saria

Doinua: *Amaren bularra*

1. Hamabortz urte ditut
denbora badoa
Ta bat-batean dena
hain da arraroa
Ezin dut kontrolatu
barruko haroa
Hau ote da delako
nerabezaroa?

2. Bizi dena handitzen
da halabeharrez
Baina zer den ez dakit
ongi, zoritxarrez
Jadanik ezer guttik
jar nazake barrez
Ta edozerrengatik
hasten naiz negarrez

3. Lagunekin liskarrak
ditut aunitzetan
Egunak pozik eta
egunak penetan
Begizulo handiak
begi azpietan
Ta orbanak maindire
ta kuleroetan

4. Jendeak, bere hortan
zenbat poderio
Gizarte normatibak
eragiten dio
Nik zer egin dezaket?
Diotsut serio
Ispilua bihurtu
bazait arerio

5. Norbait ikusten badut
bastante guapeta
Zergatik daukat tripan
mila tximeleta?
Sarritan egoten naiz
logelan gordeta
Leku seguru gisan
hau soilik dut eta

6. Zenbat instako filtro
jarraitzaile ta like
Etengabe lehiatzen
badihardu nornahik
Eta ni mindu nahian
badiote zerbait
Gitarra hartu eta
dena pasatzen zait

7. Saiatzen gara grano
guztiak tapatzen
Etxeko arazoak
aunitz ez kontatzen
Ez daukagun bizitza
perfektu bat saltzen
Ez dugu aurpegia
soilik makillatzen

8. Dena bada arazo
negar eta krisi
Nire burua maita
nezake lehenbizi
Onean zein txarrean
momentua bizi
Honaino ez naiz eta
alferrik iritsi



KATTIN MADARIAGA APAOLAZA

Zori onak, edo

B kategoria -2.saria

Doinua: *Ez hormigoizko lur zatituak*

1. Batzuk hainbertze, batzuk hain gutti
hau bada gure etxea
Ez zaitut zaintzen, badakit baina
zaila baitzait hobetzea
Nahiz urteroko legetzat dugun
Egun hau noizpait heltzea
Atzo ohartu nintzen gaur dela
zure urtebetetzea

2. Ohetik jeiki ta sukaldera
logale hutsak narama
Denak mahaiaren bueltan
zaudete
ta ni ez, hau panorama!
Obligazio hutsarengatik
diot: "zorianak, ama"
Zuk irribarrez erran didazu:
"eskerrik asko, laztana!"

3. Mahai ingurura abiatu naiz
autokonpentsatu nendin
Ta mahai erdira begiratu dut
desastre bat gara, enfin
Nahiz guretzako beti prest dagon
denontzako ez da berdin:
Gaur zuretzako inork ez baitu
bizkotxo ziztrin bat egin

4. Anaiak futbol partidua du
biok lagundu diogu
Lehengoagatik barka nazazun
agian balioko du
Haserretu naiz zeren nahiz eta
daramatzagun bi ordu
Nahiz grada bete jende dagoen
ez zaituzte zoriondu

5. Urtero legez egun honetan
bazkaltzeko gara biltzen
Zerbait gaurkoan lehenengo
aldiz
ongi joaten ari zen
Behingoan irriz ikusi zaitut
eta aski kontent nintzen
Baina berriro ere zu hasi
zara ontziak garbitzen

6. Arratsaldean, etxekolanak
ditut, ta zailak, izatez
"Ulertzen duzu?" kezkatu zara
nik erantzun: "bueno, bat ez"
Nere ondoan eseri zara
umoretsu ta aldartez
Ta elkarrekin egin ditugu
hagitz aspaldiko partes

7. Orain kontentu ikusten zaitut
ta aurpegia alaitsu
Hara! Lagunek whatsapp mezu
bat
astunak dira ba, aizu!
"Ama, kanpoan afal dezaket?"
Hala hurbildu natzaizu
lasai joateko erran didazu
ta malko bat irten zaizu

8. Etxera iritsi, ta lotan zaude
dena dago hain iluna
Zure gelara abiatu naiz
gela hain dut ezaguna
Ta erran dizut hagitz aspaldi
erran beharko nizuna
"Ikaragarri maite zaitut ta
ongi bukatu eguna"



KATTALIN LIZARRAGA MENDIA

Modelo gorputza

B kategoria - 3. saria

Doinua: *Izarren hautsa*

Gizarte honek finkatzen ditu
Hainbat estereotipo
Mintzen gaituzten arauak eta
Konplexuak ageriko
Bularra zuzen, leun azala,
Irrifar polit, gorputz argala
Baina ez eskeletiko
Ipurdi handi ta sabel fina
Beti dira hain tipiko
Eta kurbarik ez badaukazu
gerria estutzen ito
Ba gauzatxo bat diot, begira
Bizirauteko behar badira
Mila faja ta gerriko
Ez naiz luzaro biziko

Ispiluaren parean nago
Aurrera begira zutik
Maiz ikusten dut nire gorputza
Goitik behera biluzik
Parean daukat nire figura
Ez da ez txarra nire itsura
Baina ez dut onartzerik
Jendeak nitaz zer pentsatuko
Buruan ez dut besterik
Gorputz polita omen daukat, bai
Ba nik hain zihur ez dakit
Lurretik hasi eta burura
Gauza gutxikin nago gustura
Isla ikusten baitut nik
Besteen begietatik

Atzean utzi dut ispilua
Ta kalerantz naiz agertu
Lagunengana bidean noa,
Bi amona ditut gertu
"Aizu, a zer modelo gorputza"
Erantzuteko ni ez naiz gauza
Halere diot eskertu
Ez naiz eroso sentitu eta
Bizkor naiz handik baztertu
Ohartzerako besteak ere
Segituan nau aztertu
"Ez ote zaude argalegia?
Modelo_izateko, alegia"
Agian ez du ulertu:
Inork ez die galdetu

Mila konplexu ditudan arren
Zuk entzuidazu laguna
Gauza horiei aurre_egiteko
Honakoa da gutuna:
Belarriekin zuk egin zera,
Hemendik sartu handik atera
Metodo hain ezaguna
Eta mesedez bermatu_etzazu
Zure zoriontasuna
Zeren barrutik eta kanpotik
Zara eder ta kuttuna
Eta norbaitek badio ezetz
Ba arrazoia falta zaionez
Ahaztu esan dizuna,
Eta egin nahi duzuna



ENEKO FERNANDEZ MARITXALAR

Baina zergatik guri

C kategoria – 1. saria

Doinua: *Maitasuna izan leike*

1. Gure gaitzen kokagune
dugunez erietxea
albiste on zein garratzez
bete daiteke eltzea
tamalez, probatua naiz
bai bata ta bai bertzea
poztasunera biderik
zuzenena okertzea
pediatraren funtzioa
bihurtu zen forentsea
errazkerien garaian
zein zaila den ulertzea (bis)
bizitza itxoiten egon
ta heriotza heltzea

2. Gogo infinituak ta
ahalegina enegarren
buru belarri genbiltzan
guraso izatearren
hortan ez izanagatik
azkarrenetan azkarren
predictorra salatari
ta goitinahia aztarren
lehenengo ekografiak
jarri gintuen pozarren
baina patuak guretzat
berri latzena zekarren (bis)
enbarazurik gabeko
haurdunaldia zen arren

3. Nahiz ta odola isuri
ta arrats txarra igaro
diagnosia joan zen
beldurretatik harago
*"Arazoak sortu dira
ta taupadarik ez dago"*
Ahantzi nahi nituzkeen hitzak
oroituz nabil luzaro
ordura arteko poztasun
bozkario ta berbaro
izoztutako deserta
bilakatu zen zeharo (bis)
isiluneek diote
solasek baino gehiago

4. Nahigabeak sortutako
isiltasuna medio
pentsamenduak bihurtu
ohi zaizkigu arerio
*"Guri hau tokatu behar
ote zitzaitzun? Serio?
Bizitza hasi baino lehen
zergatik dator Herio?"*
Tristeziari abegi
ta ametsari adio
alferrik dira aholku
ta gomendio jario (bis)
dena galtzen duzunean
ezerk ez dizu balio

5. Tamalez menu guztiek
dakarte bere postrea
haurra atera beharra
ta odola izoztea
zalantzan ipini gabe
medikuaren ospea
une horietan zein zail den
prozesuak adostea
sentipenetik zientzia
diskurtsoak erostea
matematikoa baita
operazio ostea (bis)
umekia erditu ta
nahigabea bikoiztea

6. Alde egiteko prestatzen
genbiltzanean maleta
ikusi nahi ahal genuen
etorri ziren galdeka
gela zuriak gehiago
belztu arren zamaketa
ondorenean pentsatuz
egin nuen hautaketa
aurrez aurre haurra neukan
ta parez pare pareta
porlan arteko pitzatu
bihotz barneko arteka (bis)
hautsi arren, osatzeko
beharrezkoa da eta

7. Behar baino lehen apurtzen
baldin bada zilbor soka
saihestu ezinak dira
nahasmendua ta shocka
gertu geneukan sehaska
gertu geneukan arropa
amestutakoa nola
zaborren ontzira bota?
Pilulek arautzen dute
sentimenduen azoka
minez ez bazaude, lotan
lotan ez bazaude, jota (bis)
nola ez egon burumakur
dena hankaz gora dago ta!

8. Orenak egun izaki
eta minutuak oren
erruaren erredurak
bihurtu ziren eromen
Norbera zigorkatzea
giza ezaugarri omen
*"Hau dena ekiditea
gure baitan al zegoen?"*
*"Zer egin genezakeen guk
hau dena pasa baino lehen?"*
Galderak arrapaladan
kezkak, kezkaren ondoren (bis)
baina ez dakit erantzunak
onartzeko prest nagoen

9. Argitasunak pairatzen
baldin badu eklipsea
ohikoa da jendea
goxatzera hurbiltzea
ezustean ailegatzen
den doluaren klitxea
emozioak askatu
ta besarkadak biltzea
baina nola kanporatu
bihotz baretik iltzea?
Jasan ez duenak ez du
erraza konprenitzea (bis)
etxea beteta e(d)uki
ta hain hutsik sentitzea

10. Ta hutsunea somatzen
da gorputz osoan barna
ezkuta ezina baita
ebakuntzaren aztarna
deskonektatu ezinik
oinazearen alarma
segundu batean nola
aldatzen den panorama
"Gela prest izanen duzu"
sarri didate errana
gela soilik ez, bizitza
oso bat da prest neukana (bis)
bizi ez den etorkizun
hilko ez den iragana

11. Espero nituenean
poz malkoak barra barra
ezintasunaren ikur
bilakatu zen negarra
zorionaren ifrentzu
baldin bada zoritxarra,
hegoak moztetakoan
nola topatu iparra?
Nahiz bera den maitasuna
argitzen duen izarra
sehaska hutsa da egun
ikusten dudak bakarra (bis)
oraindik sinistu ezin
eta onartu beharra

12. Eta bikote bizitzan
hori nola ez nabari
lehenak baldintzak ipintzen
badizkio geroari
ametsa gorpuzten jardun
ondoren urte ugari
errepikatu daiteken
traumak jartzen gaitu adi
"Ama izanen naiz ziur"
aipatu arren aspaldi
berriz saiatuko garen
jadanik ez dut hain argi (bis)
beldurra diodalako
beldurrez bizitzeari

13. Doluak eta izuak
menperatuta gauzkala
bikotea lanpostura
itzuli zen berehala
legediak hutsuneak
azaltzen dizkigu hala
iluntasunak ere sor
dezake bere itzala
natural bizi ez dugun
gertaera naturala
gizarte honetan tabu
da dolu perinatala (bis)
behingoz artatu dezagun
merezi duen bezala!!!



ESTITXU AROZENA ALBIZU

Hamabi bertso baietz

C kategoria – 2.saria

Doinua: Motibo bat nigana

1. Hamabi bertso baietz
tori apustua
nahiz ez naizen agertu
sarri biluztua
terapia gisara
barrua hustua
agian da erantzun
eske zapuztua
zergatik ote dudan
gorputz injustua

2. Gaindituta lehenengo
erditze izua
bigarrenaren bila
ohatzeari sua
nahiz eta saiatzea
den paradisua
haurdun banengo gisa
igotzen pisua
baina hilabetero
gorri abisua.

3. Medikura joanta
euskaraz xuxurla
nere etsai bihurtu
zaidala baskula
odolean TS
Ha kalkula
emaitzak ematean:
*“ez aiantzi sekula
hartu beharko duzu
goizero pilula”*

4. Nahiz Eutiroxak eman
lehenengo bultzada
erabat nekatua
iristean gaba
asteaz zehar zorrotz
zaintzeko zitzada
nahiz jan fruitu barazki
eta entsalada
zaila da motibatzen
emaitzik ez bada

5. Bederatzirehun gramo,
zakurraren putza!
Alferrik teori ta
aurre ezagutza
elikagai neurtuak
behar du laguntza
ahalik eta gehien
mugitu gorputza
ea gailentzen zaion
koipeari zuntza

6. Herriko kiroldegi
pistinadun lerdan
Oilartegi SL
sozietatearen
bere izena handiz
aipatzen dut zeren
Umore feminista
izan zitekeen
baina denetarikan
biltzen gara hemen

7. Pilotan frontoi ttiki,
elkarte beroan
astearte, ortzegun
aita esperoan
raketa ta belaki
ze tanto bero han
solasa ere noski
asteaz zer doan
hobeki sentzitzen naiz
soilik poteoan

8. Silikona tapoiak
belarri zulotan
betaurreko txapela
Nabaiji arropan
Berrogeita hamar joan
etorri erronkan
amets iheskor bila
laukizuzenotan
ea disolbatzen den
alkohola klorotan

9. Ur hotzberoan aunitz
gradu bat edo bi
hogeitazortzirekin
sentitzen naiz ongi
hogeitazapi terdin
hoztutako xori
ulertzeko zaila den
sintoma bat tori
zenbat nabari dudan
gradu erdi hori

10. Inork badu nor naizen
asmatu beharra
nere estetika da
berezi xamarra
gorputz ez normatibo
gerri zirkularra
ta izango naiz noski
izan gabe arra
besapean ileak
dituen bakarra

11. Kode genetikoak
dakarren kostea
herentzian hartua
zaila da hoztea
ez duzu eksklusibo
gaizkile ospea
maite dut jaki eta
ardo egostea
ez da zilegi erru
dena egozte

12. Ai, gure harremana
ez da hain erreza
ez da bateragarri
bion interesa
ni zutaz bezalaxe
zu neretaz kexa
publikoki aurkezten
zaitut, ze sorpresa
hiper bihurtu nauzun
hipotiroidesa



MANEX MALHARIN ORTIGOSA

Bertso (gintzaren) paperaz

C kategoria – 3.saria

Bertso-sorta bat eramán nuen
nik aspaldian labera
baina inori dastarazteko
ez dut topatu aukera
ez da usteldu, ez zaio_atera
lizuna gainazalera
presta (e)zazue urdaila eta
presta (e)zazue platera
azkenik j/lana egingo baitut
izozkailutik atera:

Bertsoak eta arteak pizten
du askoren desioa
Azkenaldian berpizten dabil
eztabaida-sesioa
Zein izan behar ote den zinez
artearen funtzioa
Argudiaketen eramale fin
ez denez twitter-txioa
Ideia batzuk jasotzea da
Bertso sorta_honen zioa

Lehen xedea galdera honi
erantzuna ematea
Atzo, gaur edota etzidamu
zer ote da ba artea?
Batzuentzako edertasuna,
grina edo aldartea
Besteentzako gizarte honen
alde, publizitatea
Arteak fidel islatu ohi du
momentuko gizarte

Islatzeaz gain bete ditzake
zenbait helburu ta xede
mundua ez baitago geldirik
ez ideia ta ez lege
Mugimendu_hortan artea dugu
eragile oso trebe
Harengan askok jarria dute
haien pasio ta fede
Dekadentziaren lagun posible
ta baita aurkari ere

Artea mailu bat genuela
mintzo zitzaigun Aresti
Zorrozki jardun ohi zen Errobi
bere letra ta abesti
borroka zerbitzatzea xede
nahiz eta kantatu ezti
Hertzainak dena aldatu nahian
alaiki bezain amesti
Gaurko musikan hori ordea
ordaindu ohi da garesti

Arteak jarri egin du sarri
ebasioen baldintza
astelehenetik ostiralera
a zer bizimodu hitsa
asteburuan tekno musika
ta bestela trikitixa
Berdin-berdina bien atzean
egon daitekeen hitza:
"Goza ezazu nirekin eta
ahaztu zure bizitza"

Espresio orok aldentze hori
ez du bilatzen halare
Kaleko arte adierazpenak
garaiotan modan daude
trapa ta drilla ta graffitia
edo autotune grabe
Haien bitartez egin gaitezke
egunerokoaz jabe
Baina tamalez dena_aldatzea
helburutzat hartu gabe

Chill Mafiak auzo batzutan zehar
egin ditu mila lagun
Drogari gorazarre eginez
mugituz gihar ta ehun
Kontatuz lehen borroka grina
bazela, baina ez egun
Eta gainera haiek behintzat ez
direla horren errudun
Baina musikak ez al lezake
norabide baten jardun?

Musika gora, musika behera
bertsoaren kasuan zer?
Bat-batekoa zein idatzia
hura ederretan eder
Garaiko gizartea islatzen du,
zahar-gazte, eskuin-ezker
Eta borrokan jokatu izan
du beste_horrenbeste paper
Baina egun borroka hauspotu
al daiteke hari esker?

Nahikoa dugu begiratzea
Navarra Arenarantza
eta uxatu egingo zaigu
orain arteko zalantza
borroka grinan ala beste non
kokatua zen balantza
agurrari argi nabarmendu zen
egungo desesperantza
Bertsolaritzak ta zapalduok
ezin kenduaz arantza

Bertsogintzaren arantza hori
ez da bertsoen errua
Artea sarri izaten baita
Organismoaren larrua
Langileriak aspaldi hontan
Ahuldu baitu marrua
Berrero ere altxa behar da
astiro zurrumurrua
Horren arduradun nagusia
Antolakuntza esparrua

Bertsolaria bertsozalea
nor den nor behar da pentsatu
Ta bertso-plazan nor utzi kanpo
ta berriz nor gonbidatu
Bere ekarpenak norabide
ziur baterantza batu
Bertsoen mailu funtzio zaharra
bihurtu dadin olatu
Bertsolaritza iraultzailea
behar dugu antolatu